

**9/2013 FORU ARAUA, MARTXOAREN 11KOA, ONDAREAREN GAINEN ZERGARI  
BURUZKOA  
(ALHAO, 34. zk., 13-3-20koa, gehigarria)**

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Kontzertu Ekonomikoko 24. artikuluan ezarrita dago Ondarearen gaineko Zerga arautegi autonomoko zerga itundua dela.

Abenduaren 22ko 22/2008 Foru Arauaren bidez Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 23/1991 Foru Araua indargabetu zen (2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi zen ondorioak sortzen).

Harrezkero krisi larri batek mundu osoko ekonomia eta finantzak kolpatu ditu, eta horregatik abenduaren 22ko 19/2011 Foru Arauaren bitartez Ondarearen gaineko Zerga, indargabetuta zegoena, berriz ere indarrean jarri zen 2011rako eta 2012rako.

Egoera ekonomikoaren egungo bilakaera ikusirik, argi dago ondare handia duten zergadunei elkartasun ahalegina egiten jarraitzeko eskatu behar zaiela; ondorioz, laster abenduaren 22ko 19/2011 Foru Arauaren indarraldia amaituko denez, beste foru arau bat jarri behar da indarrean Ondarearen gaineko Zerga aplikatu ahal izateko.

Proiektu honetan Ondarearen gaineko Zergan aldaketa garrantzitsuak egitea proposatzen da. Besteak beste, jarduera ekonomikoetako lotutako ondasunen eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten erakundeetako partaidetza batzuen salbuespenei buruzko arauak aldatu dira, ondasun higiezinaren zerga oinarria kalkulatzeko aplikatu beharreko arauak bateratu dira, eta Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoaren doikuntzari buruzko arauak aldatu dira.

**I. KAPITULUA  
IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA**

**1. artikulua. Zergaren izaera eta xedea.**

Ondarearen gaineko Zerga tributu pertsonala eta zuzenekoa da; zergadunen ondare garbia kargatzen du foru arau honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Zerga honen ondorioetarako zergadunaren ondare garbia kalkulatzeko hura titular den ondasun eta eskubide ekonomiko guztiak batu behar dira eta eragiketa horren emaitzatik ondoko hauek kendu: ondasunen eta eskubideen balioa murrizten duten kargak eta zamak, eta zordunak aurre egin beharreko zorrak eta betebeharrak pertsonalak.

**2. artikulua. Aplikazio eremua.**

**Bat.** Foru arau honetan xedatutakoa zergadun hauei aplikatuko zaie:

- a) Betebeharrak pertsonalagatik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar dioten pertsona fisikoetarako; Zergak zergadun hauen ondare garbi osoa kargatuko du, ondareko elementuak zein lurraldetan dauden kontuan hartu gabe.

- b) Betebehar errealarengatik, Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren pertsona fisikoei, Espainiako lurraldean titular moduan dauzkaten ondasun eta eskubideengatik, baldin eta ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean kokatuta egonik, Arabako Lurralde Historikoan daudenen balioa beste lurralde historikoetan daudenena baino gehiago bada.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, lurralde batean dauden ondasunak eta eskubideak, bertan erabili ahal direnak eta bertan bete behar direnak lurralde horretan kokatuzat joko dira.

Zergak zergadunek Espainiako lurraldean dauzkaten ondasunak eta eskubideak soilik kargatuko ditu, foru arau honetako 11. artikuluko 4. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritz.

- c) Espainiako lurraldeko egoiliar ez izan arren azken egoitza Araban eduki duten pertsona fisikoei, baldin eta Zerga Araban ordaintzea hautatzen badute betebehar pertsonalagatik. Arabako egoiliar izateari uzten zaion lehenengo ekitaldian autolikidazioa aurkeztuz egin behar da hautapena.
- d) Espainiako estatuak eta Euskal Administrazio Publikoak atzerrian dauzkaten ordezkariak eta funtzionarioak, hain zuzen ere betebehar pertsonalagatik edo errealaragatik Zergaren kargapean daudenei, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian zergadun horiez xedatutakoarekin bat etorritz.

**Bi.** Ohiko egoitza zein den zehazteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian xedatutakoa aplikatuko da.

**Hiru.** (3) Era berean, Foru Arau hau aplikagarri izango zaio testamendu ahalorde bat edo gozamen ahaldu bat erabiltzeke duten herentzien ondare garbiari, betiere Foru Arau honek bere bosgarren xedapen gehigarrian jasotako berezitasunei jarraikiz.

### **3. artikulua. Nazioarteko itunak eta hitzarmenak.**

Foru arau honetan ezarritakoak ez du eragozten Espainiako barne antolamenduko nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

## **II. KAPITULUA ZERGA GAIA**

### **4. artikulua. Zerga gaia.**

Hau da zerga gaia: zergaduna foru arau honetako 1. artikuluan aipatzen den ondare garbiaren titularra izatea Zergaren sortzapena gertatzen denean.

Zergaren aurreko sortzapenean zergadunarenak izan diren ondasunak eta eskubideak beraren ondarekotzat joko dira, ondare eskualdaketa edo galera gertatu dela frogatu ezean.

### **5. artikulua. Salbuetsita dauden ondasunak eta eskubideak.**

Zerga honetatik salbuetsita daude:

**Bat.** (10) Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak, babes ertaina edo berezia dutenak Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera.

**Bi.** Batetik, Espainiako Ondare Historikoko ondasunak, Kultura Intereseko Ondasunen Erregistro Orokorrean edo Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean inskribatuak, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak aipatzen dituenak; bestetik, lege horretako bigarren xedapen gehigarrian aipatzen direnak, baldin eta Kultura Ministerioak kultura intereseko ondasuntzat jo baditu eta behar den erregistroan inskribatuta badaude.

Hala ere, zona arkeologikoen eta gune edo multzo historikoen kasuan, salbuespena ez zaie aplikatuko mugatutako perimetroaren barruan dauden ondasun higiezin guztiei; aitzitik, baldintza hauek betetzen dituztenei soilik aplikatuko zaie:

- Zona arkeologikoetan ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 20. artikuluan aipatzen den hirigintza planeamenduko tresnaren arabera babes berezia dutenei soilik aplikatuko zaie salbuespena.
- Gune edo multzo historikoetan ondokoei baizik ez zaie aplikatuko: gutxienez berrogeita hamar urteko antzinatasuna dutenei, baldin eta Hirigintza Plangintzako Araudiko 86. artikuluan ezarritako katalogoan badaude eta ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera erabateko babesa badute.

**Hiru.** Autonomia erkidego baten ondare historikoan dauden ondasunak, hain zuzen ere berariazko arauetan ezarritakoaren arabera halakotzat kalifikatu direnak eta hala inskribatu direnak.

**Lau.** (22) Artelanak eta antzinako gauzak, baldin eta beren balioa Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak 26. artikuluan 4. apartatuan ezartzen duenaren ondorioetarako ezartzen diren kopuruak baino txikiagoa bada.

**Bost.** Foru arau honetako 21. artikuluan aipatzen diren artelanak eta antzinako gauzak, baldin eta jabeek gordailu iraunkor moduan (hiru urterako gutxienez) lagatzen badizkiete museoari edo irabazteko asmorik gabeko kultura erakundeei jendaurrean erakusteko, gordailatuta dauden artean, eta artisten lanak, beraien ondarean dauden artean.

**Sei.** Etxeko ostilamendua, hau da, zergadunen gauza pertsonalak eta etxeko gauzak, etxeko tresnak eta erabilera partikularreko gainerako ondasun higigarriak, foru arau honetako 20. eta 21. artikuluetan aipatzen diren ondasunak izan ezik.

**Zazpi.** Tresna hauetako eskubide ekonomikoak:

- a) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide oso edo arrunten eskubide kontsolidatuak eta onuradunen eskubide ekonomikoak.
- b) (8) Pentsio planen partaideen eskubide finkatuak eta pentsio planen onuradunen eskubide ekonomikoak, enpleguko pentsiofuntsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan aipatzen diren pentsio planak barne).

- c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aipatzen diren bermatutako aurreikuspen planei ordaindutako primei dagozkien eskubide ekonomikoak.
- d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aipatzen diren enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara zergadunek egindako ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak (ekarpenetan hartzailearen kontribuzioak ere sartzen dira).
- e) Enpresek beren gain hartutako pentsioen ondoriozko konpromisoak gauzatzen dituzten talde aseguru kontratuetan, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planak ez beste batzuetan, zergadunak ordaindutako primei dagozkien eskubide ekonomikoak, Pentsio Planei eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian eta Legea garatu duen arautegian ezarritakoarekin bat etorritz, bai eta enpresaburuek talde aseguru kontratuetan ordaindutako primei dagozkienak ere.
- f) [\(1\)](#) Mendetasuna estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primei dagozkien eskubide ekonomikoak (aseguru horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 70. artikuluko 1. idatz zatiko 7. zenbakian zehaztu dira).
- g) [\(11\)](#) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan araututako banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenen ondoriozko eskubide ekonomikoak. Erregelamendu hori banakako pentsioen produktu paneuroparrari buruzkoa da.

**Zortzi.** Jabetza intelektualak eta industrialak sortzen dituzten eskubideak, egilearen ondarean dauden artean; jabetza industrialak sortzen dituenak salbuetsita egoteko ezinbestekoa da jarduera ekonomiko bati loturik ez egotea.

**Bederatzi.** [\(2\)](#) Ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 14. artikuluan xedatutakoaren arabera etekinak salbuetsita dituzten baloreak.

**Hamar.** [\(5\)](#) Pertsona fisikoen ondasunak eta eskubideak, hain zuzen ere beren jarduera ekonomikorako behar dituztenak, eta erakundeetako partaidetzen jabetza osoa, jabetza soila eta haien gaineko biziarteko gozamen eskubidea (antolatutako merkatuetan kotizatzen duten erakundeak zein kotizatzen ez dutenak), foru arau honetako 6. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero.

**Hamaika.** [\(1\)](#) Zergadunaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 8. idatz zatian ezarritako definizioaren arabera; salbuetsitako zenbatekoa: 400.000 euro gehienez.

**Hamabi.** [\(4\)](#) Atzerrian dauden ondasun era eskubideak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 56. Artikuluak aipatzen duen desplazatutako langileen araubide berezia hautatu duten zergadunen titulartasunekoak.

[\(10\)](#) Zenbaki honetan arautzen den salbuespena aplikatzen duten zergadunek ez dute eskubiderik edukiko foru arau honen 34. artikuluan ondasun eta eskubide beretarako ezartzen den kenkaria aplikatzeko.

[\(10\)](#) [\(12\)](#) Zenbaki honetan ezarritakoa aplikatuko zaie, halaber, lekualdaketaren ondorioz araubide berezi hau hautatzen duen eta egoitza fiskala Araban ezartzen duen

zergadunaren ezkontideari edo izatezko bikotekideari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 98. artikuluan aipatzen den familia unitateko kideei, baldin eta Espainiako egoiliarak izan ez badira Espainiako lurraldera lekualdatu aurreko bost urteetan.

**Hamahiru.** (4) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta eskuratzen diren egunetik hasita bost urte irautesen badute zergadunaren ondarean. Zergadunak adierazitako mantentze epea betetzen ez badu edo funtsek aipatutako foru arauaren 10. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, salbuespena galduko da eta dagozkion ekitaldietako autolikidazio osagarria aurkeztu beharko da, eta ateratzen diren diru kopuruak ordaindu, berandutze interesekin batera.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen titular den zergaduna aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu baino lehen hiltzen bada.

**Hamalau.** (4) (6) Hamalau. Jarduera ekonomikoa finantzatzea sustatzeko Europako Funtsetako partaidetzak eta ekoizpenaren kapitalizazioa sustatzeko Europako Funtsetako partaidetzak, baldin eta, hurrenez hurren, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 11. edo 12. artikuluan xedatutakoak betetzen badituzte eta erosi zirenetik bost urtez zergadunaren ondareko zati badira. Zergadunak aipatutako epe hori betetzen ez badu edo funtsek aipatutako foru arauko 11. edo 12. artikuluetan xedatutakoak betetzen ez badituzte, salbuespen egoera hori galduko da eta dagozkion ekitaldietako autolikidazio osagarria aurkeztuko da eta dagozkion zenbatekoak gehi berandutze interesak ordainduko dira.

Epea betetzat joko da, baldin eta partaidetzen zergadun titularra aurreko paragrafoan aipatutako epea bukatu baino lehen hiltzen bada. Zergadunak partaidetza horiek, zeharka, zuzeneko edo zeharkako partaidetza duen sozietate batean baditu eta partaidetza hori, gutxienez, erakunde horietako kapitalaren ehuneko bosta bada, eskubidea izango du zerga honen zerga oinarrian murrizketa bat aplikatzeko. Murrizketa hori eragiketa honen emaitza izango da: zenbaki honetan aipatzen diren Europako Funtsetako partaidetza aktibo den sozietatean duen partaidetzaren ehuneko bider haien balioa. Murrizketa horrek ezin du ekarri zerga oinarria negatiboa izatea.

**Hamabost.** (4) (9) Zergadunari Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluan ezartzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dioten entitateen akzioak eta partaidetzak, ondorio hauetarako artikuluko horren 3. eta 7. apartatuetan xedatzen dena kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko, zergadunak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluko 6. apartatuan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.

**Hamasei.** (12) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 56. artikuluan aipatzen diren akzioak, partaidetzak edo eduki ekonomikoko eskubideak.

## **6. artikulua. Jarduera ekonomikoei lotutako ondasunak eta partaidetza batzuk salbuesteko betekizunak.**

**Bat.** [\(12\)](#) Zergatik salbuetsita daude pertsona fisikoen ondasunak eta eskubideak, hain zuzen ere beren jarduera ekonomikoa egiteko behar dituztenak, baldin eta horretan zuzenean eta modu pertsonalean jardun ohi badute, eta jarduera errenta iturri nagusia bada. Halaber, salbuetsita daude bi ezkontideen edo izatezko bikoteko kideen ondasunak eta eskubideak, baldin eta bietako baten jarduera ekonomikoa egiteko erabiltzen badira eta apartatu honetako betekizunak betetzen badira.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren ehuneko 50 gutxienez jarduera ekonomikoa baten etekin garbiak badira, jarduera hori hartuko da zergadunaren errenta iturri nagusizat. Aurreko kalkulua egiteko ez dira zenbatuko artikulua honetako bigarren idatz zatian aipatzen diren erakundeetan zuzendaritza lanak egiteagatik jasotzen diren ordainsariak, ez eta horrelako erakundeetako partaidetzen ondoriozko ordainsariak ere.

Subjektu pasibo batek jarduera bi edo gehiago egin ohi baditu zuzenean eta modu pertsonalean, jarduera horiei lotutako ondasun eta eskubide guztiak egongo dira salbuetsita; horrelakoetan, aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera guztien etekinak hartuko dira errenta iturri nagusizat.

**Bi.** Zergatik salbuetsita daude erakundeen kapitaleko edo ondareko partaidetzen jabetza osoa, jabetza soila eta haien gaineko biziarteko gozamen eskubidea (antolatutako merkatuetan kotizatzen duten erakundeak zein kotizatzen ez dutenak), baldintza hauek betez gero:

- a) [\(2\)](#) [\(10\)](#) Entitatearen jarduera nagusia ez izatea ondare higikorra edo higiezina kudeatzea. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 14. artikuluan ezarritakoaren arabera entitate batek ez baditu betetzen bere aktiboaren erdia baino gehiago balorez osatuta dagoela edo jarduera ekonomikoei lotuta ez dagoela jotzeko ezarritako baldintzak, pentsatuko da ez duela kudeatzen ondare higikorra ez higiezina eta, beraz, jarduera ekonomikoa egiten duela ulertuko da.

Hori dela-eta, entitateak foru arau honen 5. artikulua bostgarren apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten artelanak eta antzinako gauzak badauzka, ondasun horiek jarduera ekonomikoei lotutzat joko dira.

Entitateak aldi berean beste entitate batzuetako partaidetzak badauzka, ondare higikorra ez duela kudeatzen pentsatzeko, baldintza hauek bete behar dira: entitate horietako bakoitzean gutxienez boto eskubideen ehuneko bost eduki behar du zuzenean, partaidetza horiek baliabide pertsonal eta materialen antolaketa egokiaren bidez zuzendu eta kudeatu behar ditu, eta partaidetza daukan entitateen jarduera nagusia ezin da izan ondare higikorra ez higiezina kudeatzea, letra honen lehen paragrafoan zehazten den bezala.

- b) [\(2\)](#) Entitatea sozietatea bada, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 14. artikuluan ezarritako kasuak ez gertatzea.
- c) [\(10\)](#) [\(12\)](#) [\(11\)](#) Zergadunak entitatearen kapitalean daukan partaidetzagutxienez ehuneko bostekoa izatea, berarena soilik zenbatuta, edo ehuneko 20koa,

berarenarekin batera ezkontidearena, izatezko bikotekidearena (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako bikotea), aurrekoena, ondorengoena edo laugarren graduako albo ahaideena ere zenbatuta (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa -Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera- edo adopzioa).

Letra honetan ezarritako baldintza betetzat joko da, baldin eta, familia taldeko kideen arteko enpresa kudeaketako ondorengotza prozesuen ondorioz, aurreko paragrafoan aipaturako pertsonaren baten edo batzuen partaidetza ehunekoa murriztu bada, edo partaidetza hori geroagoko mailako alboetara eskualdatu bada, betiere paragrafo honetan aipaturako pertsonen partaidetza guztiak edukitzera bideraturako enpresa talde baten bitartez geratzen badira, azken entitate horrek paragrafo honetako a) eta b) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituen enpresa taldeko entitate nagusiaren kapitalean ehuneko 25etik gorako partaidetza bada eta paragrafo honetan aipaturako pertsonetako batek hurrengo d) letran ezartzen den baldintza betetzen badu. Hala denean, salbuespena aplikatuko zaie paragrafo honetan aipatzen diren pertsona guztiei.

- d) Zergadunak erakundean zuzendaritza lanak egitea eta horren ordainsaria jarduera ekonomikoen eta norberaren lanaren etekin guztirako zenbatekoaren ehuneko 50 baino gehiago izatea.

Aurrekoa kalkulatzeko, artikuluko honetako lehenengo idatz zatian aipatzen diren jarduera ekonomikoen etekinak ez dira sartuko jarduera ekonomikoen eta norberaren lanaren etekinetan. Erakundeko partaidetza aurreko letran aipaturako pertsonaren batekin edo pertsona batzuekin batera edukiz gero, zuzendaritza lanak gutxienez ahaidetasun taldeko pertsona batek egin behar ditu, bai eta haren ondoriozko ordainsariak jaso ere. Hori gorabehera, gerta liteke taldeko pertsona guztiek edukitzea salbuespenerako eskubidea.

Pertsona batek hainbat erakundetan badauka partaidetza eta partaidetza guztiek betetzen badituzte idatz zati honetan ezarritako baldintzak, letra honetan ehunekoaren konputuaz ezarritako betekizuna banaka aplikatu behar zaio erakunde bakoitzari. Erakunde bakoitzeko zuzendaritza lanaren ordainsariei zergadunaren lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinaren zenbatekoan dagokien ehunekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartu behar beste erakundeetako zuzendaritza lanaren etekinak.

Zuzendaritza lanak dira lehendakariak, zuzendari nagusiek, kudeatzaileak, administratzaileak, sail zuzendariak, kontseilariak eta administrazio kontseiluko edo antzeko organoetako kideak egiten dituztenak (modu sinesgarrian frogatu behar da kontratuaren edo izendapenaren bidez); ezinbestekoa da kargu horietan aritzean enpresaren erabakietan esku hartzea.

Hurrengo seigarren idatz zatian xedaturakoa gorabehera, salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioaren zati bati (balioa foru arau honetako 17. eta 18. artikuluetan ezarritako erregelaren arabera zehaztu behar da), hain zuzen ere jarduera ekonomikoa egiteko behar diren aktiboen balioari (jardueraren ondoriozko zorrak ez beste guztiak kenduta). Erakundearen aktiboen eta zorren balioak kalkulatzeko haren kontabilitatea hartuko da aintzat (sozietatearen ondorearen benetako egoera islatzen badu) eta foru arau honetako 17. eta 18. artikuluetan eta 27. artikuluko hirugarren idatz zatian ezarritako erregelak aplikatu behar dira. Kontabilitaterik egon ezean, edo kontabilitateak ez badu

islatzen zehatz-mehatz erakundearen ondarearen benetako egoera, balioak foru arau honetan ezarritakoaren arabera kalkulatu dira.

**Hiru.** Artikulu honetan aipatzen diren ondare elementuen titularrak adingabekoa bada edo ezgaituta badago, legezko ordezkariak bete beharko ditu eskatzen diren betekizunak.

**Lau.** (2) (13) Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, aktibo bat ezinbestekoa da jarduera ekonomiko baterako, baldin eta aktiboa jarduera horri lotuta badago Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 26. artikuluan ezarritakoaren arabera; salbuespena: artikulu horren 1. apartatuaren c) letrako azken tartekian aipatzen diren aktiboak (hauek ere jarduera ekonomiko bati lotuta egon daitezke).

Foru arau horren 27. artikuluan 5. eta 6. erregeletan aipatutako aktiboak eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 31. artikuluan 3. apartatuan aipatutakoak lotuzat joko dira, manu horien arabera aktiboen gastuak kengarritzat jo daitezkeen proportzio berean.

(9) Jarduera ekonomikoa egiteko beharrezkoak ez diren aktibotzat ez dira hartuko entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekotik gorako eskuratze prezioa dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoetatik badatoz, muga honekin: urte horretan eta aurreko hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa. Paragrafo honetan xedatzen denaren arabera beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatzen ez diren elementuak ezin dira izan aktibo osoaren ehuneko 75 baino gehiago.

(14) Aurreko paragrafoan ezartzen dena ez da aplikatuko erakundeak jarduerari utzi eta ez-aktibo geratzen denean. Ondorio horietarako, erakunde bat ez ez-aktibotzat hartuko da beraren aktiboaren % 15 gutxienez enpresa proiektuetan inbertituta dagoenean edo, bestela, enpresa proiektuetan berrinbertitzen denean, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 14. artikuluan 2. apartatuaren e) letran ezartzen den bezala.

(9) Apartatu honen hirugarren paragrafoan xedatzen denaren ondorioetarako, jarduera ekonomikoen ondoriozko mozkinen parekotasun hartuko dira Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 14. artikuluan 2. apartatuaren a) letraren azken bi gidioetan aipatzen diren baloreen dibidenduak, bai eta partaidetza horien eskualdatzeetan lortutako gainbalioak ere, baldin eta entitate partaidetuak lortutako diru sarreren ehuneko 80, gutxienez, jarduera ekonomikoen bidez sortzen badira.

**Bost.** Artikulu honetako salbuespena aplikatzeko betekizunak eta baldintzak Zergaren sortzapenean bete behar dira, hurrengo seigarren idatz zatiko a) eta b) letretan batez besteko plantillari buruz xedatutako kasuetan izan ezik.

**Sei.** (11) Salbuespena ez zaie aplikatuko ondoko letretan aipatzen diren ondasunei eta partaidetzen balioari, aurreko laugarren apartatuaren azken bi paragrafoetan xedatzen dena aplikatu ahal zaienean izan ezik:

a) (2) Aurreko Bat idatz zatian ezarritakoaren arabera salbuetsita dauden ondasun higiezinak, baldin eta hirugarrenei laga bazaizkie edo haien gaineko eskubide errealak eratu badira. Horren barruan sartzen dira ondasun horiek errentan edo azpierrean ematea eta ondasunok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzea, izena eta izaera gorabehera; salbuespena: higiezin errentamenduko jarduera ekonomiko bati lotuta dauden ondasun higiezinak, baldin eta zergadunak

jarduera horretarako erabiltzen duen plantillan gutxienez batez beste bost langile badaude urtean (besteren konturako langileak, lanaldi osokoak eta dedikazio eskusiboa dutenak). Horretarako, ez dira zenbatuko Foru Arau honen Bi idatz zatiko c) letran aipatutako zergadunarekin harremana duten langileak, edo abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera zergadunarekin lotutzat jotzen diren langileak.

- b) [\(2\)](#) [\(7\)](#) [\(10\)](#) Partaidetzen balioan ekonomia ustiapenei lotuta ez dauden ondasun higieziinei dagokien zatia.

Aurreko bigarren apartatuan aipatzen diren partaidetzen balioan ondasun higieziinei dagokien zenbatekoa, foru arau honen 18. artikulua leheneren apartatuaren azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, baldin eta ondasun higiezinak hirugarrenei laga bazaizkie edo haien gaineko eskubide errealak eratu badira (honen barruan sartzen dira ondasun horiek errentan edo azpierrean ematea eta ondasunok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzeko, izena eta izaera gorabehera; honako inguruabarretako bat gertatzen denean izan ezik:

- Ondasun higieziainen gaineko eskubide errealak lagatzeko edo eratzeko eragiketarako Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikuluan aipatzen diren lotutako pertsonen edo entitateen alde egitea edo Merkataritza Kodearen 42. Artikuluan xedatzen denaren arabera talde bateko kideak diren entitateen artean, egoitza non dagoen eta urteko kontu bateratuak eman beharra gorabehera, eta, gainera, ondasun higiezinak pertsona edo entitate horiek egiten duten jarduera ekonomiko bati atxikita egotea (ondasun higiezinak errentatzea, salerostea, eraikitzea edo sustatzea ez beste bati), eta ez edukitzea batez beste plantillan horretarako ez beste ezertarako kontratatutako bost langile gutxienez jardunaldi osoarekin.

- Entitateak urteko plantillan jarduera horretarako ez beste ezertarako kontratatutako bost langile edukitzea batez beste gutxienez jardunaldi osoarekin. Horretarako, ez dira zenbatuko artikulua honen bigarren apartatuaren c) letran aipatzen den zergadunarekin lotura duten langileak, ez eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 42. artikuluan ezartzen duenaren arabera zergadunarekin lotutzat jotzen diren langileak ere.

Apartatu honen a) eta b) letretan aipatzen den plantillako batez besteko langile kopurua kalkulatzeko honako hauek eduki behar dira kontuan: langileek aurreko paragrafoan eta aurreko a) letran ezarritako betekizunak bete behar dituzte, zergadunak kapitalean gutxienez ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa daukan entitate batean egon behar dira enplegatuta, eta partaidetzak artikulua honetan ezarritako betekizunak bete behar ditu. Ildo honetatik, batez besteko plantilla kalkulatzeko kontuan hartu beharreko entitateak zehazteko ez beste ezertarako, artikulua honen bigarren apartatuaren a) eta b) letretan ezarritako betekizunak zergadunak zuzenean zein zeharka partaidetza daukan entitate guzti-guztietan bete behar dira, eta artikulua honen bigarren apartatuaren d) letran ezarritako betekizuna zergadunak zuzeneko partaidetza daukan entitateetan soilik bete behar da.

Letra honetan ezarritako salbuespena ez da aplikatuko zergadunak abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VIII. kapituluaren ezarritako araubide berezia aplikatzen duen entitatearen baten partaidetza badauka,

ez eta aipatutako foru arauaren 115. artikuluan 1. apartatuan aipatzen diren kasuetan ere.

- c) Aurreko bigarren idatz zatian aipatzen diren partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreei, talde inbertsioko erakundeetako partaidetzei eta foru arau honetako 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailuei, itsasontziei eta aireontziei dagokien zenbatekoa, foru arau honetako 18. artikuluko lehenengo idatz zatiko azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritz.

Letra honetan ezarritako salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreei dagokien zenbatekoari, baldin eta zergadunak gutxienez boto eskubideen ehuneko 5 badauka eta partaidetzak baliabide pertsonal eta materialen antolaketa egokiaren bidez zuzentzen eta kudeatzen baditu.

- d) Talde inbertsioko erakundeetako partaidetzak.

**Zazpi. (4) (12)** Artikulu honetako aurreko idatz zatietan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, zergaren kargatik salbuetsiko da, halaber, zergadunaren zerbitzuak jasotzen dituzten entitateen kapitaleko edo ondareko partaidetzen jabetza osoa, merkatu antolatuetan kotizatu nahiz ez; hori horrela izango da bai zerbitzuen ordainsariak lanaren etekintzat jotzen direnean, bai hartzailearen jarduera ekonomikoen etekintzat jotzen direnean, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauan xedatutakoaren ondorioetarako.

Horretarako, entitateak artikulu honetako Bi idatz zatiko a) eta b) letretan ezarritako betekizunak bete beharko ditu, eta, gainera, zergadunaren errentaren iturri nagusi izan beharko dira berak parte hartzen duen entitateetik lortzen dituen lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinak, alegia, etekin horiek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren jarduera ekonomiko eta lan etekin guztien ehuneko 50 izan beharko dira, gutxienez.

Salbuespena aplikatuko zaie bai zergadunaren zerbitzuak jasotzen dituen entitatearen kapitaleko edo ondareko partaidetzei, bai sozietate talde bereko gainerako entitateetako; horri dagokionez, sozietate taldeetatik joko da Merkataritza Kodeko 42. artikuluan hala definitutakoa.

Partaidetzapeko entitateak ez badu kotizatzen bigarren mailako merkatu antolatu batean, artikulu honen Bi apartatuko azken paragrafoan eta Lau, Bost eta Sei apartatuetan ezarritako mugak aplikatuko dira.

Baldin eta, ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa aplikatuta, partaidetzak bi ezkontideenak edo izatezko bikoteko bi kideenak badira, apartatu honetan ezarritako salbuespena biek aplikatu ahalko dute, nahiz eta batek bakarrik bete bigarren paragrafoan azaldutako betekizunak.

**Zortzi. (10)** Zerga honetatik salbuetsita egongo dira, halaber, artelanak eta zaharkinak dituzten entitateen kapital edo ondareko partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko gozamen eskubidea, baldin eta entitate horiek, gutxienez hiru urtez, gordailu iraunkor moduan lagatzen badizkiete museoei edo irabazteko asmorik gabeko kultur entitateei jendaurrean erakusteko, gordailupean dauden bitartean. Apartatu honetan arautzen den salbuespena ondasun horien balioaren eta entitate partaidetuaren aktibo osoaren arteko proportzioari dagokion balio zatiari aplikatuko zaio.

### III. KAPITULUA ZERGADUNAK

#### 7. artikulua. (3) Zergadunak.

**Bat.** Foru arau honetako 2. artikuluko lehenengo idatz zatian zehaztu da nortzuk diren zerga honen zergadunak.

**Bi.** Era berean, zerga honen zergadunak izango dira Foru Arau honen bosgarren xedapen gehigarriak aipatutako testamendu ahalorde edo gozamen ahaldun bat erabili gabe dauden herentziak.

#### 8. artikulua. Espainian egoiliar ez diren zergadunen ordezkariak.

**Bat.** (12) Zerga honen zergadunak ez badira egoiliar Europar Batasuneko beste estatu kide batean, zergaren aitortpena egiteko epea amaitu baino lehen, behartuta daude egoitza Arabako Lurralde Historikoan duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzera, zerga honetik betebeharretan haien ordezkari jardun dezan Zerga Administrazioaren aurrean.

Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten eta Europar Batasuneko estatu kide ez diren estatuen kasuan, aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko zerga informazioaren trukeari eta dirubilketari buruzko elkarrekiko laguntzaren gaineko araudia dagoenean, betiere Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritako moduan.

Betebehar hori bera zergadun egoiliarrek ere izango dute baldin eta, zerga egitatea behin gertatuta eta zergaren aitortpena aurkeztu baino lehen, Espainia uzten badute Europar Batasunetik kanpoko hirugarren estatu batera edo zerga arloko informazio trukean edo dirubilketan elkarri laguntzeko araudia onartua duen Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko hirugarren herrialde batera joateko. Betebehar horretatik libratuko dira aitortpen hori aurkezteko epea amaitu baino lehen itzultzen badira.

Izendapena Zerga Administrazioari komunikatzean, ordezkariaren esanbidezko onespena erantsiko zaio.

**Bi.** Lehenengo idatz zatian ezarritako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau haustea izango da, eta 150,25 - 6.010,12 euro bitarteko isunarekin zehatuko da.

**Hiru.** Foru arau honetako 2. artikuluko lehenengo idatz zatiko b) letran aipatzen diren ez-egoiliarren ondasunen edo eskubideen gordailuzainak edo kudeatzaileak erantzukizun solidarioa edukiko du gordailatuta dauzkan edo kudeatzen dituen ondasunak edo eskubideak direla eta zerga honengatik sortzen diren zorrak eta zehapenak (halakorik badago) ordaintzeko, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 42. artikuluko 4. idatz zatian ezarri den bezala.

#### 9. artikulua. Ondare elementuen titulartasuna.

**Bat.** (3) (12) Ondasunak eta eskubideak zergadunei egozteko kasu bakoitzean titulartasun juridikoari buruz aplikatu ahal diren arauak hartuko dira kontuan, bai eta zergadunek aurkeztu edo Administrazioak aurkitutako frogak ere.

Behar denean, ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoari buruzko xedapenetan eta senideen arteko ondare harremanez kasu bakoitzean aplika daitezkeen legeria zibileko manuetan ondasunen eta eskubideen titulartasun juridikoaz ezarritako arauak aplikatuko dira.

Ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoari dagozkion xedapenen edo itunen arabera ondasunen eta eskubideen titulartasuna biena bada, erdibana eratzikiko zaizkie, beste partaidetza kuota batzuk aplikatu behar direla frogatu ezean.

Ondasunen edo eskubideen titulartasuna ondo frogatzen ez bada, Zerga Administrazioak zerga erregistro batean edo beste erregistro publikoren batean halakotzat agertzen dena hartu ahal izango du titulartzat.

Kargak, zergak, zorrak eta betebeharrak aurreko paragrafoetan ezarritako erregelen eta irizpideen arabera egotziko zaizkie zergadunei.

**Bi. (3) (12)** Testamentu ahalordea erabiltzeko dauden herentzietan gozamen eskubidea egonez gero, gozamendunari aurreko idatz zatiko arauak aplikatuko zaizkio.

Arau horiek gozamendun ahalduari ere aplikatuko zaizkio gozamen ahaldua erabiltzeko dauden herentzietan.

Jabetza soilaren balioari dagokionez, edo inolako gozamendunik ez dagoenean, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak zergapetuko dira Foru Arau honek bere bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 140. artikuluan aurreikusitako ezkondu ondoko komunitatean, testamentu ahalordea egikaritu gabe dagoenean, ezkontide alargunak edo izatezko bikoteko kide alargunak dagokion erdiaren arabera ordainduko du zerga. Beste erdiari dagokionez, apartatu honetako aurreko paragrafoetan ezarritako arauen arabera ordainduko ditu zergak.

## **10. artikulua. Prezio geroratuarekin edo jabariaren erreserba eginez eskuratutako ondasunak edo eskubideak.**

**Bat.** Ondasunak edo eskubideak bere osoan edo zati batean geroratutako kontraprestazioz eskuratzen direnean, Zergari buruzko arauen arabera ondare elementuek duten balioa osorik egotziko zaio eskuratzailari, eta honek bere zorretan sartuko du geroratutako kontraprestazio zatia. Eskualdatzaileak, beste alde batetik, bere ondareko eskubideetan sartuko du geroratutako kontraprestazio zatiari dagokion kreditua.

**Bi.** Ondasunak jabariaren erreserba eginez saltzen badira, eskuratzailaren eskubidearen zenbatekoa Zergaren sortzapenera arte emandako kopuru guztien batura izango da jabetza eskualdatzen ez zaion bitartean. Kopuru horiek saltzailaren zorrak izango dira, eta berari egotziko zaio ondare elementuaren balioa (Zergari buruzko arauak aplikatuz kalkulatuta).

## IV. KAPITULUA ZERGA OINARRIA

### 11. artikulua. Kontzeptua.

**Bat.** Zerga honen zerga oinarria zergadunaren ondare garbiaren balioa da.

**Bi.** Ondare garbia kalkulatzeko ondoko bi kopuruen arteko kenketa egin behar da:

- a) Zergaduna titular den ondasunen eta eskubideen balioa (hau kalkulatzeko hurrengo artikuluetako erregelak aplikatu behar dira).
- b) Zama eta karga errealak, ondasunen edo eskubideen balioa murrizten badute, eta zergadunak bere gain hartu beharreko zorrak eta betebeharrak pertsonalak.

**Hiru.** Aurreko idatz zatian ezarritakoa gorabehera, ondare garbia kalkulatzeko ez dira kenduko salbuetsitako ondasunei dagozkien zama eta kargak.

**Lau.** (10) Zerga ordaindu behar errealak badago, Espainiako lurraldean dauden ondasunen edo bertan baliatu ahal diren edo bete behar diren eskubideen gaineko kargak eta zama soilik kendu ahal izango dira, eta horiekin batera zergapeko ondasunetan eta eskubideetan inbertitutako kapitalen ondoriozko zorrak ere bai.

### 12. artikulua. Ondasun higiezinak.

**Bat.** (1) Hiri edo landa ondasun higiezinaren zerga oinarria beraien katastroko balioa izango da.

Zerga sortzen denean ondasun higiezin baten ez badauka katastroko balioa ezarrita, edo atzerrian badago, beraren eskuraketa balioa hartuko da zerga oinarritzat, Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratu ondoren.

**Bi.** (10) Eraikitzen ari diren ondasun higiezinaren balioa kalkulatzeko honako kopuru hauek hartu behar dira kontuan: zerga sortu arte eraikuntzan benetan inbertitutako kopuruak, eta orubearen ondare balioa, artikuluko honetan ezarritakoaren arabera zehaztua. Jabetza horizontalen kasuan, orubearen balioaren zati proportzionala tituluan finkatutako ehunekoaren arabera zehaztuko da.

**Hiru.** Jabetza anitzeko kontratuen bitartez, aldi baterako jabetza kontratuen bitartez edo antzeko formulen bitartez eskuratutako ondasun higiezinaren gaineko eskubideak baloratzeko erregela hauek aplikatuko dira:

- a) Eskubideok higiezinaren titulartasun partziala badaukate, aurreko lehenengo idatz zatiko erregelak.
- b) Higiezinaren titulartasun partziala ez badaukate, ziurtagiriak edo bestelako titulu adierazgarriak eskuratzeko prezioa hartuko da baliotzat.

Turismo erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko operatutakoak eskuratzeko kontratuei, birsaltze eta truke kontratuei eta zerga arauari

uztailaren 6ko 4/2012 Legean ezarritako eskubideen balioa beraien eskuraketa prezioa izango da, izaera gorabehera.

### **13. artikulua. (2) Jarduera ekonomikoak.**

Pertsona fisikoen ondasunak eta eskubideak jarduera ekonomikoei atxikita badaude, haien zerga oinarritzat kontabilitatean islatzen den balioa hartuko da, hain zuzen ere aktiboaren eta pasiboaren arteko diferentzia, baldin eta kontabilitatea Merkataritza Kodean xedatutakoarekin bat badator. Salbuespena: ondasun higiezin, ibilgailuen, itsasontzien eta aireontzien zerga oinarria Foru Arau honetako 12. artikuluan eta 20. artikuluan, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera balioa izango da, salbu kontabilitateko balioa handiagoa bada aipatutako arauak aplikatuz eratorriko dena baino.

Ondasunak jarduera ekonomiko bati lotuta daudenez ebazteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauak aplikatuko dira. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauaren 27. artikuluko 5. eta 6. erregeletan aipatutako aktiboak lotuta daudela joko da, erregela horien arabera aktiboen gastuetatik kengarritzat jo daitekeen proportzio berean.

Kontabilitaterik ezean, edo kontabilitatea ez badator bat Merkataritza Kodean xedatutakoarekin, zerga honi buruzko gainerako arauak aplikatuko dira balioak kalkulatzeko.

### **14. artikulua. Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak.**

Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak, hirugarrenen konturakoak ez direnak, bai eta diruzaintzako kudeaketa kontuak, finantza kontuak eta antzekoak ere, Zergaren sortzapen egunean duten saldoa kontuan hartuta konputatuko dira, kasu honetan izan ezik: sortzapen eguneko saldoa urteko azken hiruhilekoko batez besteko saldoa baino gutxiago bada, azken saldo hori aplikatuko da.

Batez besteko saldoa kalkulatzeko ez dira konputatuko zergadunaren ondarean dauden ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, ondareko beste kontu batzuetara eramateko edo zorrak kitatzeko edo murrizteko ateratako funtsak.

Mailegu edo kreditu batek sortutako zor baten zenbatekoa urteko azken hiruhilekoan lehenengo paragrafoan adierazitako konturen batean sartu bada, ez da kontuan hartuko batez besteko saldoa kalkulatzeko, ez eta zor bezala kenduko ere.

### **15. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei laga zaizkiela adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatzen direnak.**

Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatzen direnak, baloratzeko Zergaren sortzapenean duten negoziazio balioa hartuko da aintzat, izendapena, ordezkari eta lortutako etekinen izaera gorabehera.

**16. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten gainerako baloreak.**

Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, aurreko artikuluan aipatutakoak ez beste batzuk, baloratzeko balio nominala hartuko da aintzat, behar den kasuetan amortizazio primak edo diru itzulketako primak gehituta, izendapena, ordezkartza eta lortutako etekinen izaera gorabehera.

**17. artikulua. Merkatu antolatuetan negoziatutako edozein erakunderen funts propioetako partaidetza adierazten duten baloreak.**

**Bat.** Merkatu antolatuetan negoziatutako erakundeen kapital sozialaren edo funts propioen akzioak eta partaidetzak, talde inbertsioko erakundeenak izan ezik, Zergaren sortzapenean duten negoziazio balioaren arabera konputatuko dira.

**Bi.** (6) (10) Merkatu antolatuetan kotizatzen duen entitate juridiko batek eman ondoren kotizazioan onartu gabe dagoen akzio edo partaidetza berria harpidetzen denean, akzio edo partaidetzaren balioa harpidetzaldian aurreko tituluak eduki duen azken negoziazio balioa izango da.

**Hiru.** (6) Ordaintzeko dauden kapital zabalkuntzei dagokienez, akzioak edo partaidetzak baloratzeko aurreko arauak aplikatuko dira, erabat ordainduta baleude bezala, ordaintzeko dagoen zatia zergadunaren zor moduan sarturik.

**18. artikulua. Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza adierazten duten gainerako baloreak.**

**Bat.** (2) (6) (12) Aurreko artikuluan aipatzen direnak ez beste akzio eta partaidetza batzuen kasuan, akzioaren edo partaidetzaren balorazioa onartutako azken balantzean eduki duen ondare balioa izango da.

Hala ere, zerga honen zerga oinarria kalkulatzeko, ondasun higiezin, bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreen, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen eta foru arau honetako 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailuen, itsasontzien eta aireontzien kontabilitateko balio garbiaren ordezkari balioa jarriko da, foru arau honetako 12. artikuluan, 15. artikuluan, 17. artikuluan, artikulua honetako Bi apartatua eta 20. artikuluan, hurrenez hurren, ezarritakoaren arabera, salbu eta kontabilitateko balio garbia handiagoa bada aipatutako arauak aplikatzen diren dena baino. Gainera, kontuan eduki behar da zergadunak zeharka, beste entitate batzuetako partaidetzen bitartez, dauzkan ondasun higiezin, bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreen, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen, eta ibilgailu, itsasontzi eta aireontzien balioa, eta erregela hau aplikatuko zaie, baldin eta partaidetza beste entitate horien kapitalaren ehuneko 5koa bada gutxienez. Halakoetan, zergadunaren partaidetza ez ezik ondokoena ere zenbatuko dira: ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena, aurrekoena, ondorengoena edo bigarren gradura arteko albo ahaideena (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa), eta Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera lotutako pertsona eta entitateenak.

**Bi.** Talde inbertsioko erakundeen sozietate kapital edo ondare funtseko akzioak eta partaidetzak Zerga sortzen deneko likidazio balioaren arabera konputatuko dira.

Horretarako, balantzean sartutako aktiboak berariazko legerian ezarritakoaren arabera baloratu behar dira eta hirugarrenetik betebeharrak kendu daitezke.

**Hiru.** Kooperatiben kapital sozialean bazkideek edo elkartekideek duten partaidetza baloratzeko nahitaez edo beren borondatez egindako ekarpen sozialen guztirako zenbatekoa hartu behar da kontuan (zenbateko hori onartutako azken balantzetik atera behar da) eta, behar izanez gero, egotzi ondoren konpentsatu gabe dauden galera sozialak kendu behar dira.

**Lau.** Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erakundeek balorazio egokiak jasotzen dituzten ziurtagiriak eman beharko dizkiete bazkideei, elkarteko kideei eta partaideei.

### **19. artikulua. (9) Bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak.**

**Bat.** Bizitza aseguruaren baliotzat, zerga sortzen denean haiek duten erreskate balioa hartuko da.

Hala ere, hartzaileak ez badauka ahalmenik zergaren sortzapen datan osorik erreskatatzeko eskubideaz baliatzeko, aseguruaren baliotzat data horretako hornidura matematikoaren balioa hartuko da hartzailearen zerga oinarrian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru kontratuei heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo bestelako arrisku berme osagarriak bakarrik jasotzen badituzte.

**Bi.** Aldi baterako errentak edo biziarteko errentak, kapitala dirutan, ondasun higigarritan edo higiezinetan ematearen ondorioz sortu direnean, zerga sortzen den egunean duten kapitalizazio balioaren arabera zenbatu behar dira, pentsioakeratzeko ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen zergan adierazi diren arau berak aplikatuz.

Hala ere, bizitza aseguru batetik aldi baterako nahiz biziarteko errentak jasotzen direnean, artikulu honetako Bat apartatuan ezarritako balioa hartuko da haien baliotzat.

### **20. artikulua. Bitxiak, luxuzko larruak, eta ibilgailuak, ontziak eta aireontziak.**

(10) Bitxiak, luxuzko larruak, autoak, 125 zentimetro kubikoko edo gehiagoko zilindrada duten bi edo hiru gurpileko ibilgailuak, laketontziak edo itsas kiroletarako ontziak, belaontziak, hegazkinak, hegazkin txikiak, belaontziak eta gainerako aireontziak zergaren sortzapen egunean duten merkatuko balioaren arabera konputatuko dira.

Hori dela eta, zergadunek merkatuko balioa kalkulatzeko Arabako Foru Aldundiak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako eta Oinordetza eta Dohaintzen Zergarako onartutako ibilgailu erabiliak baloratzeko taulak erabil ditzakete, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren sortzapen egunean indarrean daudenak.

### **21. artikulua. Artelanak eta antzinako gauzak.**

**Bat.** Artelanen eta antzinako gauzen zerga oinarria Zergaren sortzapenean duten merkatuko balioa izango da.

**Bi.** Foru arau honetako 5. artikuluko lehen bost zenbakietan ezarritako salbuespena gorabehera, definizio hauek ezarri dira:

- a) Artelanak: margolanak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, litografiak eta antzekoak, jatorrizkoak izanez gero.
- b) Antzinako gauzak: ehun urte baino gehiago dituzten ondasun higigarriak, lanabesak eta apaingarriak, artelanak eta antzinako gauzak izan ezik, baldin eta beraien jatorrizko ezaugarri funtsezkoenak aldatu ez badira azken ehun urteetako aldaketa eta konponketen ondorioz.

## **22. artikulua. Eskubide errealak.**

Gozameneko eskubide errealeen eta jabetza soilaren balorazioa egiteko Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako ezarritako irizpideak aplikatuko dira, erreferentziatzat foru arau honetako erregelen arabera ondasunak daukan balioa hartuta, behar izanez gero.

## **23. artikulua. Administrazio kontzesioak.**

Jabari publikoko edo titulartasun publikoko zerbitzuak edo ondasunak ustiatzeko administrazio kontzesioak, iraupena gorabehera, baloratzeko Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

## **24. artikulua. Jabetza intelektualaren edo industrialaren ondoriozko eskubideak.**

Jabetza intelektualak eta jabetza industrialak sortzen dituzten eskubideak, hirugarrenei eskuratuak, eskuratzaileren ondarean sartu behar dira (eskuraketa balioa), foru arau honetako 13. artikuluan ezarritakoa gorabehera.

## **25. artikulua. Kontratu aukerak.**

Kontratu aukerak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

## **26. artikulua. Gainerako ondasun eta eskubide ekonomikoak.**

Zergadunari egotzi ahal zaizkion gainerako ondasun eta eskubide ekonomikoen balioa Zergaren sortzapen eguneko merkatuko balioa izango da.

## **27. artikulua. Zorren balorazioa.**

**Bat.** Zorrek baloratzeko Zergaren sortzapen egunean duten balio nominala hartuko da, eta behar bezala egiaztatuta daudenak bakarrik kendu ahal izango dira.

**Bi.** Ezin kendu izango dira:

- a) (10) Salbuetsitako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko hartutako zorrek eta obligazioak. Salbuespena partziala bada, zorren eta obligazioen zati proportzionala kendu ahal izango da, bidezkoa izanez gero.

- b) Abalatutako kopuruak, harik eta, eskubidea baliatu eta zordun nagusia kobraezin gertatu ondoren, abal emaileak zorra ordaindu behar izan arte. Betebeharra solidarioa bada, abalatutako kopuruak ezin kendu izango dira eskubidea abala jarri duenaren aurka baliatu arte.
- c) Ondasun bat eskuratzean geroratutako prezioa ordainduko dela bermatzen duen hipoteka; hala ere, geroratutako prezioa edo bermatutako zorra ken daiteke.

**Hiru.** Ondasunak edo eskubideak eskuratzeko egindako zorren ondoriozko kenkaria inolaz ere ezin daiteke izan Zergari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera balorazioa baino gehiago.

#### **28. artikulua. Zerga oinarria zehaztea.**

Oro har, zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztuko da.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikuluan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, zerga oinarriak zehazteko zeharkako zenbatespenaren araubidea aplikatu ahal izango.

#### **29. artikulua. Peritu tasazioa.**

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 129. artikuluan aipatzen den adituen tasazio kontrajarria foru arau honetako 20., 21. eta 26. artikuluetan aipatzen diren ondasunei eta eskubideei soilik aplikatu ahal izango zaie, foru arau honetako 20. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako aukera baliatzen denean izan ezik.

### **V. KAPITULUA LIKIDAZIO OINARRIA**

#### **30. artikulua. Likidazio oinarria.**

Likidazio oinarria kalkulatzeko salbuetsitako gutxienekoa (800.000 euro) kendu behar da zerga oinarritik.

### **VI. KAPITULUA ZERGAREN SORTZAPENA**

#### **31. artikulua. Zergaren sortzapena.**

Zerga urtero sortuko da abenduaren 31n; zergaduna egun horretan titular den ondarea kargatuko du.

## VII. KAPITULUA ZERGA ZORRA

### 32. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio oinarria ondoko eskalan jasotako tasetan kargatuko da:

Likidazio oinarria Gehienez (euroak)	Kuota osoa Euroak	Likidazio oinarria, gainerakoa Gehienez (euroak)	Tasa (ehunekoa)
0	0	200.000	0,20
200.000	400	200.000	0,30
400.000	1.000	400.000	0,50
800.000	3.000	800.000	0,90
1.600.000	10.200	1.600.000	1,30
3.200.000	31.000	3.200.000	1,70
6.400.000	85.400	6.400.000	2,10
12.800.000	219.800	Hortik gora	2,50

### 33. artikulua. Kuota osoaren muga.

**Bat.** Betebehar pertsonalagatik zergadun direnen kasuan, zerga honen kuota osoaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren batura ezin da izan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenaren zerga oinarriaren ehuneko 65 baino gehiago. Hori dela eta:

- a) Ondarearen gaineko zergaren kuota osoaren zati bat ez da kontuan hartuko, hain zuzen ere, izaera edo destinoa dela eta, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak kargatzen dituen etekinak sortu ezin dituzten ondare elementuei dagokien zenbatekoa.
- b) [\(1\)](#) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriari ondoko hauek gehituko zaizkio: Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko xedapen gehigarriaren 1. idatz zatian aipatzen diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak.
- c) Bi kuota horien batura goian ezarritako gehieneko zenbatekoa baino gehiago bada, ondarearen gaineko zergaren kuota murriztuko da ezarritako mugara ekarri arte (murrizketa ezin da izan ehuneko 75 baino handiagoa).

**Bi.** Familia unitate bateko kideek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga batera ordaintzea hautatzen badute, zerga horren kuota osoaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoaren baturaren muga kalkulatzeko kide guztien Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoak batu behar dira. Murrizketa aplikatu behar bada, zenbatekoa zergadunen artean hainbanatu behar da bakoitzari Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoan dagokion zatiaren proportzioan, aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera.

**Hiru.** Artikulu honetan ezarritako batura egiteko, zergadunaren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren oinarriari gehitu behar zaizkio jabetza soilak daukan ondasunek sortutako etekinak, baldin eta gozamina:

a) [\(2\)](#) [\(12\)](#) Zergadunak ezkontideari, izatezko bikotekideari, aurreko bati, ondorengo bati edo bigarren graduako albo ahaide bati (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eratziki badio, edo Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikulua arabera lotuta dagoen pertsona edo erakunde bati.

b) Hirugarren bati eskualdatu badio Zergaren sortzapenaren aurreko bost urteetan.

Batera zein bestera, eta besterik frogatu ezean, ondasunen gozamenak urtean sortutako etekinen zenbatekoa honela kalkulatu da: ondasunen jabetza osoaren balioaren ehuneko 5a (balio hori foru arau honetako 12 - 26 bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera zehaztu behar da).

[\(10\)](#) Gainera, zergadunaren ondorean sartuko dira zergaren sortzapenaren aurreko bost urteetan kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, ondoko kasuan izan ezik: dohaintza emaileari ondarearen gaineko zergaren ordainketan ondasunen balioaren besteko zenbatekoa kargatu zaiola frogatuz gero. Erregela hau ez zaie aplikatuko Irabazteko asmorik gabeko elkarten zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 19. artikuluan aipatzen diren entitateen esku kostu gabe jarritako ondasunei.

#### **34. artikulua. Atzerrian ordaindutako zergak.**

**Bat.** Zerga betebeharrak pertsonala dela bide ordaindu behar dutenek ondoko kopuruetatik txikiena ken dezakete Zergaren kuotatik atzerrian dauden ondasunak edo atzerrian baliatu behar diren eskubideak direla eta, nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa gorabehera:

a) Zergaren kargapean dauden ondare elementuengatik atzerrian karga pertsonala dela eta benetan ordaindutako zenbatekoa.

b) Atzerrian zergapetutako likidazio oinarriaren zatiari Zergaren batez besteko tasa efektiboa aplikatzearen emaitza.

**Bi.** Batez besteko karga tasa efektiboa kalkulatzeko eragiketa hauek egin behar dira: eskalaren aplikazioaren emaitzako kuota osoa likidazio oinarriaz zatitu eta horren emaitza 100ez biderkatu. Batez besteko karga tasa efektiboa bi hamarrenekin adierazi behar da.

### **35. artikulua. (3) Ondare erantzukizuna.**

Zerga honen ordainketan sortzen diren zorren eta zehapenen izaera Kode Zibileko 1.365. artikuluan aipatzen direnena izango da. Beraz, irabazizko ondasunen bitartez edo irabazitako ondasunen bidez (arabide ekonomikoa foru komunikazioa bada) kitatuko dira ezkontideetariko edozeinek Foru Ogasunarekin kontzeptu hori dela-eta dituen zorrak eta, hala badagokio, ezartzen zaizkion zehapenak.

(10) Aurreko paragrafoan ezarritakoa izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, bikote lagunek ezarritako ondare arabide ekonomikoari Kode Zibilaren manu hori aplikatzen bazaio.

## **VIII. KAPITULUA ZERGAREN KUDEAKETA**

### **36. artikulua. (5) Autolikidazioa.**

**Bat.** Zergadunek zerga honen autolikidazioa aurkeztu behar dute eta behar den kasuetan zerga zorra ordaindu behar dute. Aurkezpena eta ordainketa non, nola eta noiz egin behar diren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du. Gainera, foru diputatu horrek autolikidazioak baliabide elektronikoen bitartez zer kasutan eta nola aurkeztu daitezkeen finkatuko du. Halaber, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak autolikidazio eredu erraztuak edo bereziak erabiltzea onartu ahal izango du.

**Bi.** Zergadunek eragiten dieten datu guztiak adierazi behar dituzte autolikidazioetan, eta horiekin batera ezartzen diren agiri eta frogagiri guztiak aurkeztu behar dituzte.

Hain zuzen ere, autolikidazioan, batetik, jarduera ekonomikoei dagozkien ondasunak, eskubideak eta zorrak zehaztu behar dituzte, bai eta haien balioak ere, eta bestetik, partaidetzak eta foru arau honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden beraien balioen zatiak.

(4) Autolikidazioan jaso beharko dituzte, halaber, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako, jarduera ekonomikoaren finantzaketa sustatzeko Europako funtsetako eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, baldin eta funts horiek salbuetsita badaude, foru arau honen 5. artikuluko hamahiru eta hamalagarren idatz zatietan xedatutakoaren arabera.

**Hiru.** Zerga zorrak eta zehapenak ordaintzeko ondasunak edo eskubideak eman ahal izango dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 59. artikuluan ezarri den bezala.

### **37. artikulua. Autolikidazioa aurkeztu behar duten pertsonak.**

Ondokoek aurkeztu behar dute Ondarearen gaineko Zergaren aitortpena: autolikidazioaren ondorioz dirua sartu behar duten zergadunek, bai eta, autolikidazioaren emaitza bestelakoa izan arren, 2.000.000 eurotik gorako balioa duten ondasunak eta eskubideak dituztenek (balio hori Zergari buruzko arauak aplikatuta kalkulatu behar da).

## **IX. KAPITULUA**

### **ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

#### **38. artikulua. Arau haustek eta zehapenak.**

Foru arau honetan ezarritako arau bereziak gorabehera, zerga honi dagozkion arau haustek Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko IV. tituluan xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

## **X. KAPITULUA**

### **JURISDIKZIO ORDENA**

#### **39. artikulua. Jurisdikzio ordena.**

Foru arau honetan aipatutako gaien inguruan Administrazioaren eta zergadunen artean gertatzen diren egitezko edo zuzenbidezko auziak ebazteko jurisdikzio eskudun bakarra administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da, betiere bide ekonomiko-administratiboa agortu ondoren.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### **Lehenengoa. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aipamenak.**

Antolamendu juridikoan Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 23/1991 Foru Araua eta Ondarearen gaineko Zerga 2001ko eta 2012ko ekitaldietarako berriz ere indarrean jarri zuen abenduaren 22ko 19/2011 Foru Araua aipatzen diren guztietan aipamena foru arau honetan ezarritako Ondarearen gaineko Zergari dagokiola pentsatu behar da.

#### **Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren aldaketa.**

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 44. artikuluko 2. idatz zatiko c) letrako lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“c) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 6. artikuluan aipatutako enpresa edo partaidetzen kostu gabeko eskualdaketetan, ezkontide, izatezko bikotekide, aurreko edo ondorengo ahaideen alde egiten direnean, hurrengo baldintza hauek betetzen badira:”

**Bi.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 44. artikuluko 2. idatz zatiko d) letrako lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“d) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 6. artikuluan aipatutako enpresa edo partaidetzen eskualdaketetan, enpresako langile baten edo batzuen alde egiten direnean, aurreko letran jasotako betekizunak betetzen badira eta espezialitate hauek kontuan izanik:”

## **Hirugarrena. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren aldaketa.**

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauko 22. artikuluko 7. idatz zatiko lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“7. Banako enpresaren bat, lanbide negozioren bat, erakundeen partaidetzak edo horien gaineko gozamen eskubideak “mortis causa” eskuratzen badituzte hildakoaren hirugarren mailara arteko alboko ahaideek, eta eskuraketari Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 6. artikuluko bigarren idatz zatian arautzen den salbuespena aplikatu ahal bazaio, orduan Zergaren zerga oinarrian ehuneko 95eko murrizketa aplikatu ahal izango dute, baldin eta ondorengorik edo adoptaturik ez badago eta eskuraketak bere hartan irauten badu kausatzailearen heriotzaren ondorengo bost urteetan, eskuratzaila epe hori amaitu baino lehen hil ezean.”

## **Laugarrena. 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako kontratuen arabera alokatu diren higiezinak baloratzea.**

1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako kontratuen arabera alokatu diren higiezin baliok, sortutako errentaren 100eko 4 kapitalizatuz zehaztuko da, betiere, horrela kalkulaturako balioa, Foru Arau honek aurreikusitako ondasun higiezinak baloratzeko arauak aplikatuz izango lukeena baino txikiagoa bada.

## **Bosgarrena. (3) Testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe dauden herentzien zerga araubidea.**

**Lehenengoa.** Ondarearen gaineko Zergari dagozkion xedapen zehatzak.

1. Xedapen gehigarri honek, Foru Arau honen artikuluetan ezarritako berezitasunekin batera, arautzen du testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe dauden herentzien zerga araubidea, Ondarearen gaineko Zergan.

Herentziaren kausatzaileak, heriotzaren unean, Araban izan badu ohiko bizilekua, Arabako Foru Aldundiari dagokio aipaturako zerga ordainaraztea aurreko paragrafoan jasotako xedapenak aplikatuta.

2. Foru Arau honen manuak aplikagarri izango zaizkio testamendu ahalorde bat edo gozamen ahaldun bat (Foru Arau honek bere 9. artikuluen bigarren idatz zatian aipaturakoa) erabiltzeke duten herentzien ondare garbiari, betiere xedapen honen hurrengo idatz zatietan jasotako berezitasunei jarraikiz.

3. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen herentziak zerga ordaintzeko betebeharra du, eta haren betebeharra da, era berean, Foru Arau honetan ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

4. Betebehar pertsonalagatik zergadun direnen kasuan, zerga honen kuota osoaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoaren batura ezin da izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenaren zerga oinarriaren ehuneko 65 baino gehiago. Hori dela eta:

a) Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoaren zati bat ez da kontuan hartuko, hain zuzen ere izaera edo destinoa dela eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak kargatzen dituen etekinak sortu ezin dituzten ondare elementuei dagokien zenbatekoa.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriari batu behar zaio Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aipatzen den dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa.

c) Bi kuota horien batura goian ezarritako gehieneko zenbatekoa baino gehiago bada, Ondarearen gaineko Zergaren kuota murriztuko da ezarritako mugara ekarri arte (murrizketa ezin da izan ehuneko 75 baino handiagoa).

Idatz zati honetan ezarritako kalkulua egiteko, testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duen herentziari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarriari gehitu beharko zaio jabetza soilaren eta gozamenaren ondasunetako etekinen zenbatekoa:

a) [\(12\)](#) Kausatzaileak edo komisarioak kausatzailearen ezkontideari, izatezko bikotekideari, aurreko bati, ondorengo bati edo bigarren graduako albo ahaide bati (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eratziki badio, edo Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikulua arabera lotuta dagoen pertsona edo erakunde bati.

b) Kausatzaileak hirugarren bati eskualdatu badio zerga sortu aurretiko bost urteko epean.

Kasu batean zein bestean, aurkakorik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hau dela ulertuko da: ondasunon jabetza osoa dela eta konputatu beharreko balioaren %5, Foru Arau honen 12-26. artikuluetan xedatzen denaren arabera.

[\(10\)](#) Halaber, testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duen herentziaren ondarean konputatuko dira kausatzaileak kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, betiere zerga sortu aurreko bost urteetan, baldin eta egiaztatzen ez bada dohaintza hartzaileak horien balio parekidea duen zenbateko baten truke tributatzen duela ondarearen gaineko zergan. Erregela hau ez zaie aplikatuko Irabazteko asmorik gabeko elkarteen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 19. artikuluan aipatzen diren entitateen esku kostu gabe jarritako ondasunei.

**Bigarrena.** Ondarearen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari begirako xedapen erkideak.

**1.** Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden herentziaren betebeharrak formal eta materialak, herentziaren administratzaileak edo gozamenaren ahaldunak bete beharko ditu, hurrenez hurren.

**2.** Testamentu ahalordea erabili gabe duen herentziaren administratzailea eta gozamenaren ahaldua erabili gabe duen herentziaren gozamenaren ahalduna erantzule subsidiarioa

izango da Ondarearen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketari dagokionez.

**3.** Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideek Ondarearen gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Zergan tributatu dute, haien edukitzailea zeinahi dela ere, salbu eta edukitzaile hori erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat bada, edo, ezin inskriba daitezkeen ondasun higigarrien kasuan, onustez eta titulu zuzenarekin justifikatzen bada ondasun eta eskubideok merkataritzako edo industriako establezimendu batean eskuratu direla.

Horretarako, aurreko paragrafoan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketa, ondasun eta eskubide horiek testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua osorik edo zatiz eta modu ezeztazinean erabiltzeagatik edo horiek azkentzeagatik eskualdatzen badira, esku hartzen duten notarioek, beraiek eskuetsitako agirietan, ohartarazi behar dute ezen ondasun eta eskubide horiek Ondarearen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotak, eskualdaketa baino lehen sortutakoak, ordaintzeari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.

Era berean, Jabetzako edo Merkataritzako erregistratzaileek orri bazterreko ohar baten bidez adierazi behar dute ondasunak eta eskubideak Ondarearen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotak, eskualdaketa baino lehen sortutakoak, ordaintzeari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

**Lehenengoa. (4) Inbertsioak sortu berri diren edo berritzaileak diren mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan.**

Foru Arau honen 5. artikulua hamabosgarren idatz zatian ezarritakoa aplikagarri izango zaie 2018ko urtarrilaren 1etik eskuratutako akzio edo partaidetzei.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

**Bat.** Ondokoak indargabetuta geratuko dira 2013ko urtarrilaren 1ean:

- a) 19/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa.
- b) Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauko 21. artikuluko 2. idatz zatia.
- c) Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauko 71. artikuluko 5. idatz zatia.

**Bi.** Indargabetuta geratu dira foru arau honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko eta beheragoko mailako xedapen guztiak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.** Foru arau hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

**Bigarrena.** Arautegi bidezko garapen berria onartzen ez den bitartean, eta foru arau honetan xedatutakoaren aurka ez doan guztirako, abenduaren 21eko 160/1999 Foru Dekretua indarrean dagoela ulertuko da. Foru dekretu horren bidez arautegi bidezko beste garapen bat eman zitzaien Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko hamargarren idatz zatian xedatutakoari, hain zuzen ere, jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezkoak diren pertsona fisikoen hainbat ondasun eta eskubideren salbuespenari eta hainbat erakundetako partaidetzaren salbuespenari buruz xedatutakoari (2012ko abenduaren 31n indarrean zegoen testua).

**Hirugarrena.** Arabako Foru Aldundiak baimena dauka foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

## **OHARRAK**

- (1) 33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa.  
(ALHAO, 140. zk., 13-12-9koa, gehigarria).
- (2) 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa.  
(ALHAO, 152. zk., 15-12-30ekoa).
- (3) 18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa.  
(ALHAO, 112. zk., 17-09-29koa).
- (4) 2/2018 Foru Araua, martxoaren 7koa.  
(ALHAO, 32. zk., 18-3-16koa).
- (5) 41/2018 Foru Dekretua, abuztuaren 10ekoa.  
(ALHAO, 92. zk., 18-8-10ekoa).
- (6) 22/2019 Foru Araua, abenduaren 13koa.  
(ALHAO, 149. zk., 19-12-30ekoa).
- (7) 25/2019 Foru Araua, abenduaren 20koa.  
(ALHAO, 149.zk, 19-12-30ekoa).
- (8) 2/2021 Foru Araua, urtarrilaren 29koa.  
(ALHAO, 15. zk, 21-02-08koa).
- (9) 34/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa.  
(ALHAO, 146. zk, 21-12-29koa).
- (10) 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa.  
(ALHAO, 150. zk, 22-12-30ekoa).
- (11) 26/2023 Foru Araua, abenduaren 22 koa  
(ALHAO, 150. zk, 23-12-29koa)
- (12) 19/2024 Foru Araua, abenduaren 20koa.

(ALHAO, 147. zk, 24-12-30ekoa).

(13) 3/2025 Foru Araua, apirilaren 9koa.  
(ALHAO, 44. zk, 25-4-16koa).

(14) 21/2025 Foru Araua, abenduaren 19koa.  
(ALHAO, 147. zk, 25-12-29koa).